

HEZKUNTZA

IZARRA HERRI ESKOLAKO JOLASGUNEAN JOLAS BERRIAK JARRI DIRA

UDALAK, GURASOEK ETA IKASTETXEEK JOLASGUNEAK INKLUSIBOAGOAK EGITEKO HELBURUARI JARRAITUZ, IZARRA HERRI ESKOLAKO JOLASGUNEAN JOLAS BERRIAK JARRI DIRA.



Badira urte batzuk Izarra Herri Eskolako zuzendaritzak, gurasoen elkarteak eta Udalak ikastetxeko jolasgunea inklusiboa bilakatzea erabaki zutela; hau da, aurretik futbolaren inguruan (eta ia soilik) erabiltzen zen jolasgunean bestelako joko, kirol eta aisialditarako ere lekua egitea.

Horretarako, beharrak zerrendatzeko, guraso, ikasle eta zuzendaritzak esku hartu zuen partehartze prozesua abiarazi zuten. Eta gero, horrekin, proiektua idatzi zuten.

Behin proiektua eginda, berau aurkeztu eta Eusko Jaurlaritzaren Jolasgune Inklusiboen laguntzak jaso zituzten. Hala, jolas desberdinak jarri zituzten, eta oso harrera ona izan zuten.

Oreka jokoak

Orain, azken fase honetan, aurretik jarritako jokoen babeserako zoru teknikoa berritu da eta jolas berriak jarri dira. Honako hauek oreka jokoak eta panel interaktiboak dira.

Oreka joko hauek eusteko sokek, pasabide esekiak, oreka habeak, enborren habiak eta tipi erako etxetxoak osatzen dute. Horien helburua da gaitasun sozialak, emozionalak eta intelektualak areagotzea, eta adin txikikoen garapen eta autonomia sustatzea.

Jolasgune honen handitzeak, Lurkoi enpresak egin duenak, 65.000 euroko kostua izan du, eta horietatik 60.000 Eusko Jaurlaritzaren Jolasgune Inklusiboen programak finantzatu ditu.

ENPLEGUA

UDALERRIAREN MANTENURAKO 10 PEOI ETA ARDURADUN BATEN KONTRATATZEA

SEI HILABETETARAKO, OBRA TXIKIETAN ZEIN MANTENU LANETAN ARITZEKO.

Udalak berriro ere pertsona berriak kontratatuko ditu iraupen mugatu baterako; hain zuzen ere, bederatzi pertsona peoi lana egiteko eta horien arduraduna.

Egun osoko jardunean eta sei hilabetez (martxotik irailera) 10 peoiko taldea koordinatu eta zuzentzeko lana lortzeko interesa duenak Udaletxean bertan aurkeztu beharko du bere curriculuma urtarrila bukatu aurretik. Kontuan hartuko dira esperientzia, prestakuntza eta egingo zaion elkarrizketa.

Bestalde, beste deialdi bat egin da 10 pertsona sei hilabetez eta %75eko jardunean peoi bezala aritzeko. Deialdi horretan parte hartzeko interesa dutenek, Lanbideren bitartez egin beharko dute.

Lan eskaintza hau Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Europako Gizarte Funtzak finantzatzen dute, Euskadiko FSE Plus 2021-2027 Programaren esparruan.



NEGU GARAIRAKO KULTURA PROGRAMA ZABALA

URTARRILAREN 28TIK MARTXOAREN 18RA BITARTEAN PUBLIKO MOTA GUZTIETARA ZUZENDUTAKO 15 KULTURA EKINTZA IZANGO DIRA UDALERRIAN.

Urkabustaizko Udalak negu garairako kultura ekintza eskaintza handia antolatu du. Izan ere, urtarrilaren 28tik martxoaren 18ra bitartean 15 kultura ekintza izango dira: kontzertuak, documental eta film emanaldiak, herri inauteriak, Santa Agedarekin lotutako ekintzak, antzezlanak, Emakumearen Nazioarteko Egunarekin lotutako ekintzak, ipuin kontalariak, dantza, Korrika-ren inguruak...

Asteburu honetan bertan Aldakan taldearen kontzertua izango dugu; eta otsailaren 9an herri inauteriak ospatuko dira. Gainera, otsailaren zehar hainbat documental

eta film emanaldi izango dira; eta Urkabustaizko Musika Eskolako ikasleek urteroko musika emanaldia eskainiko dute.

Martxoari dagokionez, Emakumeen Nazioarteko Egunarekin zein Korrika-rekin lotutako ekintza ugarietz gain, 'Feminissimas' antzezlanak, 'Azken galdera amari' ipuinaren aurkezpena (Manex Beristain eta Mirari Sagarzazuren eskutik), eta antzerkia zein dantza uztartzen dituen 'Esna' ikuskizuna izango dira.

Orohar, mota askotariko ekitaldi ugari, denon gustukoak izatea espero duguna.

UDALEKO WHATSAPP KANALAREN ABIARAZTEA

UDAL INFORMAZIO GUZTIA ESKURATU DEZAKEZU, ZURE MUGIKORRAREN APLIKAZIOETAKO BERRIKUNTZETATIK DESKARGATUTA.

Udal informazio guztia eskuratu dezakezu, zure mugikorraren aplikazioetako berrikuntzetatik deskargatuta.

Urkabustaizko Udalak luzaroan erabili izan du whatsappeko banaketa zerrenda bat bizilagunen artean udal informazioa zabaltzeko.

Baina orain gutxi banaketa zerrenda hori kendu eta whatsapp kanala martxan jarri du. Honek Udalaren eta herritarren arteko komunikazioa asko erraztu du.

Udalaren jakinarazpen horiek jasotzeko interesa dutenek lotura honetan [klik](#) egin beharko dute eta beraien mugikorrekin Urkabustaizko aplikazio honetara sartu.



LABURRAK

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren ordainagiriak helbideratzeko epea otsailaren 15ean amaituko da.

Hortik aurrera, ordainketa zuzenean aurkeztu beharko da Udaletxean.



Feminissimas

DE STE XEITO PRODUCCIONES
Dirección: Xavier Castiñeira
Dramaturgia: Esther F. Carrodegua

EGITARAU MURRIZTUAGOKO INAUTERIAK

URKABUSTAIZKO HERRI INAUTERIEK EGITARAU TXIKIAGOA IZANGO DUTE AURTEN. ANTOLATZAILEEK ESPERO DUTE DATOZEN URTEETAN JAIA BERRINDARTzea.

Urkabustaizko herri inauteriek jai egun ederra osatzen dute: Ostuñotik abiatutako kua-drillen jaiatsierarekin hasi, plazan dantzak egin eta gauez kontzertu indartsuak hartzen dituena.


Zoritxarrez aurten jai horren antolakuntza errelebo falta izan da, eta puntuari egon dira ez antolatzen. Azkenean, Lan eta Jolas elkarteak gidaritza hartu du eta herriko beste hainbat elkareren atekak joz gutxieneko egitaraua antolatu dute inauteriak ospatzeko. "Ez dugu jai egun hau galtzea nahi, eta espero dugu poliki-poliki berrindartu eta

izan zena berreskuratzea", azaldu dute Lan eta Jolas-etik.

Hori horrela, ardurak banatu dituzte eta otsailaren 9an, ostirala, ospatuko dira inauteriak Udaletxeko plazan: 18:30ean buruhandiak eta joaldunak izango dira; eta 19:00etan, guraso elkartekoek hurbildutako guztiei txokolatea banatuko diete. Horren ostean, Triskari dantza taldeak gidatutako dantza plaza saioa izango da; eta, bukatzeko, gauean, Orduñako Placton musika taldeak bertsoien kontzertua egingo du.

BERRERABILGUNE ZERBITZUAREN BALORAZIO POSITIBOA

ZERBITZUA ABIARAZI ETA ZAZPI HILABETE IGAROTA, URKABUSTAIZKO UDALAK LARRAZKUETA KALEKO 7.ENEAN KOKATUTAKO BERRERABILGUNE ZERBITZUAREN BALORAZIO POSITIBOA EGIN DU.



Trukerako lokala ireki eta lehen hiru hilabetez, maiatzetik uztaileara, 56 pertsonak erabili dute: 40 (%71) emakume eta 16 (% 29) gizon. Pertsona horiek 37 objektu utzi zituzten guztira, Ekin-eko langileek espazioari lehen bultzada emateko egin zituzten ekarpenez gain. Gainera, erabiltzaileek kategoria desberdinetako 30 objektu eraman zituzten guztira.

Abuztuan zerbitzua itxita egon zen. Eta irailetik abendura bitarte erabilera nabarmen handitu da 198 erabiltzaileekin. Gainera, uzten diren objektuak hirukoiztu dira, eta ia bost aldiz biderkatu dira lokalean jasotzen direnak (124 eta 143, hurrenez hurren). Beraz, datozen hilabeteetarako aurreikuspenak oso positiboak dira.



Irantzu Varela Urrestizala

1974, Portugalete

Basaurin bizi izan zen umetan, eta Euskal Herriko Unibertsitatean Komunikazio-zientzietako lizentziatura egin zuen. Nazioarteko garapena-ekin eta lankidetzarekin lotutako graduondoko ikasketak egin zituen, baita komunikazioarekin eta generoarekin lotutakoak ere.

Feminismoaz eta emakumeen egoeraz interesatuta, prozesu autodidakta bati ekin zion, gaur egun erreferente feminista ezaguna izatera iritsi arte.

GGKEen esparruan hasi zen lanean, Komunikazio arduradun eta Prestakuntza koordinatzaile gisa. Faktoria Lila erakunde komunitarioaren sorreran parte hartu zuen, eta gaur egun bertako sare sozialen koordinatzailea, prestatzailea eta kudeatzailea da. Generoari, berdintasunari, feminismoari, indarkeria sinbolikoari, maitasun erromantikoaren kritikari, lidergoari eta komunikazioari buruzko prestakuntza-tailer ugari eman ditu.

Nazioan eta nazioartean ezaguna da El Tornillo-rako feminismoari buruz egiten dituen bideoengatik. La Tuerkaren webgunean, PúblicoTVn eta YouTube argitaratzen dira, eta ironia eta sarkasmoa dituzte ezaugarri. Horietan, emakumeen eta gizonen eta pertsona disidenteen arteko desberdintasunekin lotutako gaiak jorratzen ditu. ETBko eta La Sextako telebista saioetan ere aritu da tertuliakide gisa. Irantzu Varela prentsan idazten du, borroka feministaz eta matxismoaren kritikaz. “Él nunca me pegó” dokumentalaren zuzendaria izan zen; bikote heterosexualek arteko harremanean eragindako indarkeria psikologikoari buruzkoa da lana.

EH Bilduren Bizkaiko senaturako hautagai izan zen 2015eko Espainiako hauteskunde orokorretan, eta gaur egun, Andrea Momoitio kazetaria-ekin batera, “La Sinsorga” Bilboko Kultur Zentro Feminista sortu du.

Pasó su infancia en Basauri y estudió en la Universidad del País Vasco donde se licenció en Ciencias de la Comunicación. Cursó estudios de posgrado relacionados con el desarrollo y la cooperación internacional y también con la comunicación y el género.

Interesada por el feminismo y la situación de las mujeres, inició un proceso autodidacta hasta llegar a ser, hoy en día, una reconocida referente feminista.

Empezó a trabajar en el ámbito de las ONGD como responsable de Comunicación y coordinadora de Formación. Fue partícipe de la creación de la organización comunitaria Faktoria Lila donde actualmente es coordinadora, formadora y gestora de redes sociales. Ha impartido numerosos talleres de formación sobre género, igualdad, feminismos, violencia simbólica, crítica del amor romántico, liderazgo y comunicación.

Es conocida a nivel nacional e internacional por los vídeos sobre feminismo que elabora para El Tornillo. Vídeos que se publican en la web de La tuerka, en PúblicoTV y en YouTube y que están caracterizados por la ironía y el sarcasmo. En ellos, trata temas relacionados con las desigualdades entre mujeres y hombres y personas disidentes. También ha intervenido como tertuliana en programas de televisión de la cadena ETB y La Sexta. Irantzu Varela escribe en prensa, acerca de la lucha feminista y la crítica al machismo. Fue directora del documental Él nunca me pegó, el cual trata sobre la violencia psicológica ejercida en una relación de pareja heterosexual.

Ha sido candidata de EH Bildu al senado por Vizcaya en las elecciones generales de España de 2015 y actualmente ha creado junto con la periodista Andrea Momoitio, el proyecto “La Sinsorga”, Centro Cultural Feminista en Bilbao.